

MENTXAKAREN AITORPENA: Martuteneko kartzelan

(...)

Guardia Zibilaren komandantziatik irtendakoan, mundu berri bat ezagutu nuen Martuteneko kartzelan, lur azpiko mundu bat, zeren ETAk frankismoaren kontra ilunpetan zeraman borroka kartzelan bakarrik gera zitekeen agerian. Askatasuna zen, nolabait; lau harresiren arteko zoko hartan harrapatutako askatasuna. Behin, eguneroko gimnastika egiten genuen bitartean, funtzionario biren arteko elkarrizketa entzun nuen:

–Nahi dutena egin, eta gainera, gerrillarako ari dituk trebatzen.

Esparru estu hartan, gazte asko bildu ginen; laurogeiren bat preso politiko guztira. Ez zen jende interesgarririk falta. Esperientzia politiko eta pertsonal asko kontatu genizkion elkarri. Estrategia berriak behar genituen borroka egiteko, beste bizimodu baten bila genbiltzan, eta etorkizunari buruz eztabaidatu genuen luzaro. Horrela, bada, lagun berriak egiteko eta beste bizipen batzuk geureganatzeko aukera paregabea egokitu zitzaigun.

Oiartzungo koadrilakoak (Arakama, Arbelaitz, Amezttoi...) gu baino lehen harrapatu zituzten. Meliton Manzanasen hilketa gertatu berria zen, eta amorru bizian zeuden guardia zibilak. Ikaragarri sufritu zuten komisarian, baina ez zuten, hala ere, umorerik galdu. Amezttoi, esate baterako, xelebrea zen; berehala jartzen gintuen barrez.

–Mugan harrapatu, eta “alto” eman ez gero, ba al dakik zer esan behar duan? –galdetu zion behin norbaiti.

Ez zekien.

–Alto, pero delgado –esan zion serio-. Baina ez ahaztu, hanka egin behar duk berandu baino lehen korrika.

Eibarkoak ere bazeuden batzuk: Azkoiti, Landru eta Patxi Jaka. Jatorra zen oso Patxi; on puska. Horrela esan zion behin Imanol Larzabali:

–Nola ibili liteke euskalduna gerriko more horrekin? Ez haiz, ba, marikoia izango...?

Lagun handiak egin ziren gero. Kartzelan zebiltzan zurrumuruak ziren. “Marikoi” talde bat harrapatu omen zuen poliziak sarekada batean, eta Martutenera ekarri behar omen zituzten. Ez zegoen halakorik; etakide donostiarrak ziren denak: Andoni Egaña, Juan Felix Zarauz, Txetxu “Txiletarra”, Abalde, Mimentza, Larrea,

MENTXAKAREN AITORPENA: Martuteneko kartzelan

Imanol, Iñaki Lertxundi Lertxundi... Espetxean sartzen ikusi zituztenean, garai hartako pentsamolde matxista bitarteko, sinesgarriak bihurtu zitzaizkien esamesak; izan ere, herrietan ez bezalako janzkera zekarten.

Iñaki Lertxundi Lertxundi toreroa zen, eta modu bitxi samar batean harrapatu zuten. Garai hartan "El donostiarra" deitzen zioten zaleek, eta horrela salatu omen zuten komisarian. Poliziak haren deskribapena, izengoitia eta non ibili ohi zen ere bazekien, baina toreroa zela, ez. Horrela, bada, Kansas kafetegira joan zitzaizkion bila, eta bidean, zezenketa bat iragartzen zuen kartel batekin egin zuten topo: Ignacio Lerchundi Lerchundi "El donostiarra". Gure artean inork ez zuen konprenitzen nola egon zitekeen torero bat ETA barruan. Ustekabearen ondoren, hala ere, diru-iturri interesgarria izan zitekeela hasi ziren pentsatzen negozioetan azkarrenak, eta zezenketak antolatzeko aukera ere aztertu zuten erakundea finantzatu ahal izateko.

Lazkaoko alkatearen etxea erre zutenak ere bertan zeuden. 1968ko abuztuaren 2an egin zuten beren lana. Alkatea karlista, kontserbadorea eta abertzaletasunaren kontrario amorratua zen, eta bere ondasunen kontra jo zuten Txabi Etxebarrietaren hilketa, Iñaki Sarasketaren kondena eta Salbuespen Egoera gaitzesteko. Erasoan Dionisio Santoiok, Badiolak eta Begiristainek hartu zuten parte, eta Juanito Sarasola, alkatearen iloba, bitartean, kanpoan gelditu zen, besteei babes eman eta kaleko argiak deskonektatzeko. Alarma jo zutenean, berak eraman omen zituen guardia zibilak osabaren etxeraino.

-Itzalgailu bat ere eskatu nioan suhiltzaile bati -esan ohi zuen Juanitok gau hartakoa kontatzen zuenean-, baina baratzean ezkutatu nian, patata batzuen artean.

Askotan egiten zuen bere osabaren kontura barre.

-Oporretatik etorri zenean, Beasainen jarri zuan bizitzen, eta nik ekarri behar izaten nian egunero Lazkaoko udaletxera. Bidean gindoazela, zer? -galdetu omen zion Sarasolak behin-, ba al daukazue norbaiten susmorik?

-Ez, ez zekiagu ezer -esan omen zion haserre- baina eroriko dituk, eroriko dituk...

Zuzenean parte hartu zutenentzat heriotza-zigorra eta 48 urte eskatu zituzten, eta Sarasolarentzat, berriz, 30 urte laguntza emateagatik. Horren berri jakin zutenean, lur jota gelditu ziren. Egun oso txarrak izan ziren beraiantzat, eta oso zailak egin zitzaizkigun gure arteko harremanak. Burumakur ikusten genituen patioan

MENTXAKAREN AITORPENA: Martuteneko kartzelan

bueltaka, eta ez genekien zer esan beren desesperazioan lagun egiteko. Interes handiarekin jarraitu genuen epaiketa Martutenetik. Urte hartako azaroaren 12an izan zen. Juanitori 12 urte eta egun bat erori zitzaizkion, eta gainerakoei 48 urte, baina heriotza-zigorra, eskerrak, hutsean gelditu zen. Prozesuari buruzko alderdi barregarrienak gogoratu bakoitzean, hala ere, aurreko egunetan metatutako tentsioak algara bihurtu ziren alkatearen kontura.

–Gaiztoak, oso gaiztoak ginela esaten zian –komentatzen zuen batek, eta beste guztiek barre egiten zuten lehertu arte.

–Zergatik? –galdetzen genien gainerakoek, inguruan jarrita.

Castellsek edo Bandresek –Juanito ez zen ondo gogoratzen bietatik nork– herrian nola portatzen ziren galdetu omen zion bere osabari, eta gaiztoak, oso gaiztoak erantzun omen zuen bekozkoz. Abokatuari ez zitzaion, nonbait, nahikoa iruditu, eta berriz egin zion eraso.

–Zuk gaiztoak direla esaten duzu, baina orain arte ez da inolako kexarik izan Lazkaon...

–Gaiztoak, oso gaiztoak –esaten omen zuen alkateak berean egoskortuta.

–Su ematen hasi baino lehen –hartu zuen parte Badiolak– errebolber bat agertu zuan bere etxeko bazter batean, eta eraman egin nian.

Atxilotu zutenean egindako miaketan aurkitu zuen poliziak, eta sei urte eta egun bat eskatu zioten Badiolari horregatik. Adituek esan zuten, behar zuen munizioa zaila zen eskuratzen, baina ondo egiten zuen oraindik tiro. Azalpenak entzun ondoren, alkateari begira-begira, horrela esan omen zion Bandresek:

–Onartzen al duzu errebolber hau zurea dela?

Alkateak onartu egin zuen, eta armak erabiltzeko baimena epaimahaiari erakusteko eskatu zion abokatuak. Juanitoren osabak, lotsatuta, ez zeukala erantzun zuen, eta Bandresek orduan, harro, zera esan omen zion juezari: aktan jasota gera dadila, eta ondoren, sei urte eta egun bat eskatzen zituela alkatearentzat armak legez kanpo edukitzeagatik. Ikustekoa izan omen zen gizonak jarri zuen izu-aurpegia.

Arrasate inguruko jendea ere bazegoen barruan: “los Cabras” izenarekin ezagutzen zituen jendeak. Inguruko bailaretan ibili ziren gehienbat, Javier Zumalderen gidaritzapean. Oso ideia xelebreak

MENTXAKAREN AITORPENA: Martuteneko kartzelan

zeuzkan borroka armatuari dagokionez, mendiko gerrillaren alde zegoen eta 1967. urtean erakundetik bidali zuten. Nolanahi ere, barruan zeudela esan zien jarraitzaileei beti, eta taldeak batuta iraun zuen. Espetxean sartutakoan, etakideak zirela uste zuten oraindik. Apraiz, Benito Zumalde (Jabierren anaia), Luzio eta besteak zur eta lur gelditu ziren erakundetik kanpo zeudela jakin zutenean. Kolpe izugarria izan zen beraientzat.

Azkenean, ordea, bat egin zuten gurekin, eta abentura txundigarriak kontatu zizkiguten. Proba izugarri gogorak gainditu behar izaten omen zituzten taldean sartzeko. Zuhaitzetik zintzilik uzten omen zituzten hasiberriak, janaririk gabe, mendian urruti. Batzuetan, harriz betetako motxila bizkarrean (40 edo 50 kilo inguru) ibilaldi luzeak egin behar izaten omen zituzten, borrokara begira borondatea indartzeko. 1968.ean, batzuk erori eta beste batzuek mugaz beste aldera egin behar izan zuten alde. Zenbait urte geroago, Baionan egin genuen berriz topo.

Mentxakaren aitorpena, 72-77 or.